



HEZKUNTZA SAILA

Unibertsitate eta Ikerketa
Sailburuordetza
Unibertsitate Politika eta Koordinazioko
Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Viceconsejería de
Universidades e Investigación
Dirección de Política y Coordinación
Universitaria

EBAZPENA, 2022ko urtarrilaren 3koa, Unibertsitate Politika eta Koordinazioko zuzendariarena; honen bidez, 2021-2022 ikasturterako unibertsitateko Ikasiker lankidetzak beka eskaeren ebazpena ematen du (B modalitatea).

Hezkuntza sailburuak, 2021eko ekainaren 22ko aginduaren bitartez (uztailaren 16ko EHAAn argitaratua), unibertsitateko ikasleentzako Ikasiker lankidetzak beka deialdia egiten zuen 2021-2022 ikasturterako. Aginduaren oinarrien 3.2 artikulua beka B modalitatea jasotzen du: lankidetzak garatuko da udan, 2022ko ekainaren 1etik irailaren 30era bitartean.

Agindu horren 15.3 artikulua ezartzen duenez, B modalitatearen ebazpenak hiru zerrenda izango ditu: eskabide esleipendunak, ez-esleipendunak eta erreserbak.

Hautaketa-batzordeak, 2021eko abenduaren 30ean, Ikasiker lankidetzak beka A eta B modalitatean aurkeztutako eskaeren behin betiko ebazpen proposamena aurkeztu dio Unibertsitate Politika eta Koordinazioko zuzendariari.

Horregatik, aipatutako Aginduan ezarritako gainerako prozedura-arauak beteta,

EBAZTEN DUT

Lehenengoa.- Deialdiaren Aginduak ezarritako baldintzak betetzen dituzten eskatzaileei eta beka lortzeko behar den ordena zenbakia dutenei beka ematea, zenbatekoa: 25.200 euro, B Modalitatean (I. Eranskina).

Bigarrena.- Deialdiaren Aginduak ezarritako baldintzak betetzen ez dituzten eskatzaileei eta, baldintzak bete arren, beka lortzeko behar den ordena-zenbakia ez duten eskatzaileei beka ukatzea, B Modalitatean (II. Eranskina).

Hirugarrena.- Baldintzak bete arren beka lortzeko moduko ordena-zenbakira iristen ez diren erreserben zerrenda argitaratzea (III. eranskina).

Laugarrena.- Ebazpen honen kontra, gorako errekurtsioa jarri ahal izango du interesatuak, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordeari zuzenduta eta hilabeteko epean, jakinarazi eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko urtarrilaren 3a.

Miren Artaraz Miñón

UNIBERTSITATE POLITIKA ETA KOORDINAZIOKO ZUZENDARIA